



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 18a

116. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 10-22/LEY-00010. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen estatutua arautzen duen Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).
- 10-22/LEY-00012. Foru Lege proiektua, justizia errestitatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestitatibo komunitarioei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/MOC-00094. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “leihatila” fisiko bat ireki dezan herritarrei energia-merkatuan dauden errealtate ezberdinei buruzko informazioa emateko, gai horien gaineko aholkularitza eskaintzeko eta kontratuak eraldatzeko behar diren izapideak egiten laguntzeko. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 10-22/MOC-00095. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da bere babesa eman diezaion Memoria Demokratikoari buruzko Legeari eta Espainiako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan onetsitako legean diren neurri guztiak. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).
- 10-22/MOC-00096. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da biriketako minbiziaren antzemate goiztiarrerako berriazko programa pilotu bat ezar dezan, kostu-eraginkortasuna eta Nafarroan modu orokorrean ezartzeko egingarritasuna baloratuko dituen. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (7. or.).
- 10-22/MOC-00097. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren ezinbesteko akordioak lor ditzan Nafarroako industriako eragile nagusiekin, adoste aldera Nafarroari lehiakortasun industrialia mantentzea eta handitzea ahalbidetuko dion eredia. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 10-22/DEC-00043. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

—10-22/DEC-00044. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Saray elkarteak abian jarritako elkartasun kanpaina aldeztu baitu eta Nafarroako herritarrei bertan parte hartzera dei egi-ten baitie. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00010. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen estatutua arautzen duen Foru Lege proiektua.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, honao erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen estatutua arautzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2022ko azaroaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege

proiektua 2022ko irailaren 23ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/LEY-00012. Foru Lege proiektua, justizia errestitatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestitatibo komunitarioei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, honao erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Justizia errestitatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestitatibo komunitarioei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2022ko azaroaren 22ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua

2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00094. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “leihatila” fisiko bat ireki dezan herritarrei energia-merkatuan dauden errealitate ezberdinei buruzko informazioa emateko, gai horien gaineko aholkularitza eskaintzeko eta kontratuak eraldatzeko behar diren izapideak egiten laguntzeko.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “leihatila” fisiko bat ireki dezan herritarrei energia-merkatuan dauden errealitate ezberdinei buruzko informazioa emateko, gai horien gaineko aholkularitza eskaintzeko eta kontratuak eraldatzeko behar diren izapideak egiten laguntzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzera, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2022ko urriaren 20ko Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Energiaren prezioen gorakada eragin larria izaten ari da familiengan; kezka handiz begiratzen diote udazkenari, eguna laburtzarekin eta tenperaturak jaistearekin bat ordu gehiagoz erabili behar baitira argi artifiziala eta berokuntza.

Ziurgabetasuna. Horixe izanen da, ziurrenik, herritarrek urtaro hasi berrian bizi duten egoera hobekien zehazten duen hitza; prezioek berriz ere gora egin dutelako –gorabeherak izan badira ere–, prezioei eusteko hartutako neurrien gainetik; horriduraren inguruan kezka dagoelako, eta abar.

Gai izanen al naiz “argiaren” faktura ordaintzeko? Eta berokuntzarena? Ohiko galderak dira herritarren artean, eta bataren edo bestearen ordu-murrizketei heltzen diete, haien kostuari aurre egiteko gai izateko itxaropenez.

Eta udazkena neguaren bezpera baino ez da.

Konpainiaz aldatu behar al nuke? Edo tarifaz? Zein komeni zait gehien? Zenbat aurreztuko nuke honekin edo harekin? Horiek dira jendeak bere buruari egiten dizkion beste zenbait galdera, eta gehienok ez dakigu erantzuten.

Une hauetan, zenbait kontratazio aukera daude: nagusiki, “azken baliabideko tarifa” (edo tarifa arautua) eta merkatu librekoak; baina, tamalez, familia guztiek ez dute behar beste bitarteko, aukera edo jakintza beren kontratuak aztertu eta, egoki izanez gero, egin beharreko aldaketak egin ahal izateko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du “leihatila” fisiko bat ireki dezan herritarrei energia-merkatuan dauden errealitate ezberdinei buruzko informazioa emateko, gai horien gaineko aholkularitza eskaintzeko eta kontratuak eraldatzeko behar diren izapideak egiten laguntzeko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sortutako zerbitzu berria leku, giza baliabide eta baliabide material eta zuzkidura ekonomiko egokiz hornitu dezan, bere eginkizunak gauzatu ahal izateko.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako

Gobernua premiatzen du hedapen-kanpaina bat egin dezan, herritarrei jakinarazteko zerbitzu berria abiarazi dela.

Iruñean, 2022ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

10-22/MOC-00095. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da bere babesa eman diezaion Memoria Demokratikoari buruzko Legeari eta Espainiako Gobernua premiatzen da abian jarritzan onetsitako legean diren neurri guztiak.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua premiatzen baita bere babesa eman diezaion Memoria Demokratikoari buruzko Legeari eta Espainiako Gobernua premiatzen baita abian jarritzan onetsitako legean diren neurri guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2022ko urriaren 20ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da babesa eman diezaion Memoria Demokratikoari buruzko Legeari, eta Espainiako Gobernua premiatzen da abian jarritzan onetsitako legean diren neurri guztiak.

Joan den urriaren 5ean, Memoria Demokratikoari buruzko Legea onetsi zuten Gorte Nagusietan.

Parlamentuko aniztasun osoko indar politiko gehienek adostasunez onetsi da legea bi ganberetan, eztabaida eta negoziazio prozesu luze eta lasai baten ostean. Zalantzarik gabe, legearen edukia aberastu egin da zenbait ikuspuntutatik negoziazio prozesu horri esker.

2007ko Memoria Historikoaren Legearekin hasi zen memoria historikoa berreskuratzeko bidea eta nagusiki gerraren eta diktadura frankistaren biktimei aitortzea eta erreparazioa eskaintzera bideratutako politika publikoak sortzekoa.

Hamabost urte beranduago, PPK bere agintaldian guztia geldi eduki ostean, nabarmendu ziren hala garai hartan aurreikusitako helburuak betetzeko berrikusi beharreko zenbait gai nola konpondu beharreko gabezia batzuk.

Izan ere, egoera sozialak eta politikoak aldatu egin dira; ikusi zen abenduaren 26ko 52/2007 Legearen artikuluetan aurreikusitako neurri batzuk inplementatzea zaila zela; erkidegoetan memoria-ekin lotutako politikak landu dira, eta esperientzia berriak ekarri ditu horrek; memoriaren aldeko mugimenduak eta gizarte zibilak ekarpen eta eskari berriak egin dituzte; kulturek eta giza eskubideen egikaritzeak aurrera egin dute oro har; eta giza eskubideen alorrean oso entzutetsuak diren zenbait GKEk eta nazioarteko erakundeak, Nazio Batuen erakundeak adibidez, balorazio zehatzak egin dizkiote aipatutako legeari. Baldintza horiek guztiak direla eta, estatuko lege-esparruan doikuntzak egitea komeni zen, eta behar horri erantzuten dio, hain zuzen ere, Memoria Demokratiko-

ari buruzko Legeak. Estatuaren erantzun bat eratu da, iraganeko gertakariak beren osotasunean asumitzeko, biktimen oroitzapena garbitzeko, egindako kalteak onbideratzeko eta norgehiagokak eta indarkeria politikoen edo erregimen totalitarioen justifikazioak errepikatu ez daitezten.

Lege honekin, espainiar demokraziak bere iraganarekin duen zor hori itxi nahi da, eta bakearen defentsan, aniztasunean eta totalitarismo politikoren forma ororen gaitzespenean oinarritzen den diskurtso komun bat sustatu, totalitarismoak arriskuan jartzen baitu giza duintasunak berezko dituen eskubideak eta askatasunak benetan egikaritzea. Eta, ildo horretatik, etorkizunarekiko konpromisoa ere bada; demokrazia eta oinarrizko eskubideak defendatzen dira paradigma komun gisa eta gure bizitza publikoaren, bizikidetzaren eta herritartasun kontzientziaren ezinbesteko jomuga gisa.

Beren giza eskubideen urraketa pairatu zuten pertsonen aintzatespenaren alorrean, lege berri horrek beste batzuk osatzen ditu, hala nola 1936ko errepresioaren biktimei errekonozimendua emateko Foru Legea, Terrorismoaren Biktimak Aintzatetsi eta haiei Osoko Babesa emateko Legea, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Foru Legea eta Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko Foru Legea.

Memoria Demokratikoari buruzko Legeak badu bere fokua Nafarroan, Ezkabako gotorlekua memoria historikoaren toki izendatu baitu. Nafarroako Gobernuarekin eta, hala badagokio, zeriku-

sia duten toki-entitateekin izenpetutako lankidetzahitzarmen baten bidez, memoria demokratikoa errekonozitu, zaindu eta hedatzearekin bat datozen jarduerak finkatuko dira, dagokion foru araudian jasotako baldintzei jarraikiz.

Horregatik guztiagatik, iruditzen zaigunez Nafarroako Parlamentuak, nafar herria ordezkatzeko duen erakundea den heinean, ez duela memoria demokratikoari eman nahi zaion bultzada politikoa horretatik kanpo gelditu behar, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio Memoria Demokratikoari buruzko Legeari, eta Espainiako Gobernuarekin premiazten du abian jar ditzan onetsitako legean diren neurri guztiak.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin premiazten du legearen hamazazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa gauzatzeko egin beharreko jarduketak has ditzan lehenbailehen, Ezkabako gotorlekua memoria historikoaren toki izendatzeko bide emanen baitu, eta horretarako behar diren lankidetzahitzarmenak sustatu ditzan.

3.- Nafarroako Parlamentuak ukitutako administrazioak premiazten ditu Gorte Nagusiek onetsitako legean xedatutakoaren arabera memoria demokratikoaren aurkakoak diren eta bide publikoan dauden elementu guztiak kendu ditzaten edo interpretazio edo esanahi berri bat eman diezaizkien, beren eskumenen esparruan eta ahalik eta adostasun handiena lortzeko ahaleginak eginez.

Iruñean, 2022ko urriaren 13an

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

10-22/MOC-00096. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da biriketako minbiziaren antzemate goiztiarrerako berariazko programa pilotu bat ezar dezan, kostu-eraginkortasuna eta Nafarroan modu orokorrean ezartzeko egingarritasuna baloratuko dituen.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita biriketako minbiziaren antzemate goiztiarrerako berariazko programa pilotu bat ezar dezan, kostu-eraginkortasuna eta Nafarroan modu orokorrean ezartzeko egingarritasuna baloratuko dituen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Espanian eta Nafarroan hilortasun handiena eragiten duen minbizia biriketakoa da. Minbiziak eragindako heriotzen ehuneko 20 biriketako minbiziaren ondorioz da.

Foru Komunitatean gutxi gorabehera 400 biriketako minbizi diagnostikatzen dira urtero, eta horietatik ehuneko 80 gaixotasunaren fase aurretuetan diagnostikatzen da.

Tabakoa da kausarik ohikoena.

Tabakoaren aurkako neurriez gain, Europar Batasunak eta gure herrialdeko zientzia-elkarteek eta gaixo-elkarteek biriketako minbiziaren baheketa bat ezartzea babesten dute, gaixotasuna modu goiztiarrean detektatu eta tratatzeko, ahalbidetze aldera bizi-kalitatea hobetzea eta gaixotasun horren biziraupen-tasa handitzea. Badago baheketa horren eraginkortasunaren ebidentzia zientifikoa.

SEPARen gidaritzapean, Cassandra proiektuak proba pilotu bat egin nahi du autonomia-erkidego bakoitzeko 1-2 zentroren parte-hartzearekin, ebaluatze aldera Espainian biriketako minbiziaren baheketa-programa bat ezartzea.

Nafarroa aitzindaria izan zen bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren antzemate goiztiarrerako programak ezartzeari eta horien estaldura eta emaitzei dagokienez, baina orain beste autonomia-erkidego batzuen atzetik dago umetoki-lepoaren minbiziaren antzemate goiztiarrerako programa ezartzeaz bezainbatean, eta ez du planteatu biriketako minbiziaren baheketa-programarik ezartzea, jakin badakigu ere Nafarroak badituela esperientziak eta baliabideak berriz ere lidergoa hartzeko minbizi detektatzeko baheketa-programetan.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foru Komunitatean biriketako minbiziaren antzemate goiztiarrerako berariazko programa pilotu bat ezar dezan al bait azkarren, kostu-eraginkortasuna eta Nafarroan modu orokorrean ezartzeko egingarritasuna baloratuko dituen.

Iruñean, 2022ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/MOC-00097. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren ezinbesteko akordioak lor ditzan Nafarroako industriako eragile nagusiekin, adoste aldera Nafarroari lehiakortasun industrial mantentzea eta handitzea ahalbidetuko dion eredu.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren ezinbesteko akordioak lor ditzan Nafarroako industriako eragile nagusiekin, adoste aldera Nafarroari lehiakortasun industrial mantentzea eta handitzea ahalbidetuko dion eredu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Duela zenbait hilabetetatik, energia-kostuak eta lehengaien prezioak –herritar guztien poltsikoak kaltetzeaz gain– industria-jarduera suntsitzen ari dira pixkanaka, eta hori funtsezkoa da edozein komunitateren garapen ekonomikorako, are gehiago Nafarroaren kasuan, tradizio handiko garapen industrial sendoa baitu.

Era berean, kalkuluen arabera, industriaren prezioek urte arteko ehuneko 25,5eko igoera izan zuten uztailean, Nastat Nafarroako Estatistika Agentziaren arabera. Eta datu horiekin bat, sektore horretan energia-kostua bikoiztu egin da urte batean, eta ehuneko 106ra iritsi da; lehengaien prezioa, aldiz, ehuneko 23,3 igo da epealdi berean.

Testuinguru horren ondorioz, sektoreko zenbait ordezkari, Nafarroako Metalaren Enpresaburu Elkarteak esaterako, salatu dute haien industria-jarduera “egoera kritikoa” dagoela eta prezioen igoeraren ondorioz konpainia batzuk ekoizpena eten behar izaten ari direla. Bestalde, berriki, Nafarroako Enpresa Konfederazioak, Merkataritza Ganberak eta ADEFANek ere ohartarazi dute neurriak hartu behar direla hazkundera, garapen ekonomikoa eta Nafarroara inbertsioak eta enpresak erakartzea bermatzeko.

Ildo beretik, azken hilabeteetan enpresa-adierazle guztiek okerrera egin dute, esaterako, enpresen galerari buruzkoek. Duela gutxi jakin dugu Nafarroa izan dela merkataritza-sozietate gutxien sortu dituen bigarren autonomia-erkidegoa da, urtetik urtera ehuneko 20ko jaitsiera egon baita enpresa berrien sorreran. Deuseztatutako enpresen ehunekoari erreparatu gero, enpresen suntsiketa nabarmen igo da, ehuneko 25, hain zuzen ere.

Jarduera-galera hori islatzen dute zenbait adierazle, esaterako, Industria-produkzioaren indizearen azken datuak, zeina ez da iritsi pandemiaren aurreko mailara, eta are gutxiago 2008ko finantza-krisiaren aurrekoa (maila altuena Nafarroako historian). Foru Komunitatearen ekonomia-errentzat egoera garestia da, haren ehuneko 30 inguru sektore horri baitagokio.

Testuinguru hori ikusita, Navarra Sumak uste du ezinbestekoa dela industria-sektoreari laguntza sendoa emateko proposamenak egitea. Alde batetik, prezioen igoerari aurre egiteko premiazko neurri koiunturalak, eta ez adabaki hutsak, hau da, energia-trantsizio eraginkorra bermatu eta denboran iraungo duten neurriak.

Eta bestetik, ganbera honetan konpromiso bat lortu behar dugu industria-sektoreak behar duen inbertsioa bermatuko duten beharrezko neurriak adosteko, ahalbidetze aldera ez soilik enpleguari eustea, baizik eta handitzea.

Horretarako, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuaren konpromiso irmoa enpresa-jarduera sustatzeko, segurtasun juridikoarekin eta alferriko trabak ekidinez, horiek, proiektuak ezartzeko

kaltegarriak izateaz gain, industria-enpresentzat oztopo baitira.

Horrenbestez, eta enpresa- eta industria-garapenari dagokionez gure Komunitateak bizi dituen ondorio negatiboak arintzen lagunduko duten irtenbideak bilatze aldera, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren ezinbesteko akordioak lor ditzan Nafarroako industriako eragile nagusiekin, Nafarroari lehiakortasun industriala mantentzea eta handitzea ahalbidetuko dion eredu adoste aldera.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza ekonomikoa

emateko neurri zehatzak ezar ditzan –fiskalitatea baliatuta edo laguntzen bidez–, xede hartuta arintzea energia-prezioen igoeraren inpaktua eta horrek industria-sektorean dituen ondorioak.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabakitasunez sustatu eta lagundu dezan energia-proiektu berriztagarriak ezartzea, betiere lehiakortasun handiagoa ekarri eta etorkizuneko elektrizitate-fakturaren kostuak arintzen badituzte.

Iruñean, 2022ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

10-22/DEC-00043. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Hartara, heldu den urriaren 17an ekitaldi bat eginen du, Parlamentuko atalondoan, 12:00etan, Gizarte Entitateen Plataformarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Itunean pobreziaren eta desberdinkeriaren aurka duen konpromisoa.

3. Parlamentuak itun horren jarraipena egiteko eta ituna betetzeko urratsak egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

4. Nafarroako Parlamentuak funtsezkotzat jotzen du erronka global berriei aurre egitea, desberdinkeriak areagotu egin baitira gure gizartean eta are gehiago herrialde txirotuetan.

5. Nafarroako Parlamentuak olan bat jarriko du bere fatxadan, Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguna ospatzeko”.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/DEC-00044. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Saray elkarteak abian jarritako elkartasun kanpaina aldeztu baitu eta Nafarroako herritarrei bertan parte hartzera dei egiten baitie.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko urriaren 17an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Saray elkarteak abian jarritako elkartasun kanpaina aldeztu eta Nafarroako herritarrei bertan parte hartzera dei egitea.

2. Minbiziaren aurkako ikerketan inbertitzearen garrantzia eta beharra azpimarratzea.

3. Nafarroako Parlamentuko atalondoan ekitaldi instituzional bat egitea heldu den urriaren 19an, 12:00etan.

4. Parlamentuaren egoitzaren fatxada kolore arrosaz argizatzea 2022ko urriaren 19ko iluntzean, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Egunaren kariatara”.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

